

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ELTZIEGOKO UDALA

#### Alkatearen eskumenak eskuordetzea

Ezkontza zibila egiteko espedientea jaso da Eltziegoko erregistro zibiletik, Pablo Martínez López eta Zaloa Santín González ezkongaiak eskatuta, eta Eltziegoko udaletxean ezkondu nahi dute.

Kontuan hartu da Bake epaileek, alkateek edo eskuordetutako zinegotziek ezkontza zibilerako baimena emateari buruzko abenduaren 23ko 35/1994 Legeak 51.1. artikuluan eta Toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Arautegiak alkatearen eskumenak eskuordetzeari buruz 43. artikuluan xedatzen dutena.

Honen bidez, eta nire eskumenekoak diren eginkizunak betez, hauxe ebatzi dut:

Lehenengoa. Rafael Vázquez Longrande zinegotzia eskuordetzea Pablo Martínez López eta Zaloa Santín González jaun-andreen ezkontza zibila egiteko Eltziegoko udaletxean, 2021eko martxoaren 18an.

Bigarrena. Ebazpen hau zinegotzi ordezkariari jakinaraztea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaraztea.

Laugarrena. Hurrengo osoko bilkuran udalbatzari ebazpenaren berri ematea.

Eltziego, 2021eko urtarrilaren 29a

*Alkatea*

*LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE*